XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

495

EBAZPENA, 2016ko abenduaren 21ekoa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez aldatu egiten baita honako ebazpen hau: 2016ko otsailaren 15ekoa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko egiaztatze metrologikoko erakundeek erabili beharreko etiketa metrologikoen formatuak eta edukiak.

Ebazpena, 2016ko otsailaren 15ekoa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez ezarri baitziren Euskal Autonomia Erkidegoko egiaztatze metrologikoko erakundeek erabili beharreko etiketa metrologikoen formatuak eta edukiak.

2016ko ekainaren 7an eman zen argitara 224/2016 Errege Dekretua, zeinarekin garatu egiten baita Metrologiari buruzko abenduaren 22ko 32/2014 Legea; eta lege horretako III. eranskinaren bidez, ezarri ziren –estatu mailan– etiketa metrologikoen formatuak eta erabilerak.

Ondorioz, komenigarria da 2016ko otsailaren 15eko Ebazpena egokitzea 244/2016 Errege Dekretuari.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza da ebazpen hau emateko eskumena duen organoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera (2013-04-24ko EHAA). Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko zigilu metrologikoen formatuak eta edukiak, zeintzuk egokituko baitira ebazpen honen eranskinetan zehaztutakoari.

Ebazpen honek, argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak. Hala ere, eragile metrologikoek egun dituzten zigiluak erabiltzen jarraitu ahal izango dute 2017-06-08 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 21a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
AITOR PATXI OREGI BAZTARRIKA.

I. ERANSKINA

0.– ERREFERENTZIAKO ARAUDIA

– 32/2014 Legea, abenduaren 22koa, Metrologiari buruzkoa.

– 244/2016 Errege Dekretua, ekainaren 3koa, Metrologiari buruzko abenduaren 22ko 32/2014 Legea garatzen duena.

– 1994ko abenduaren 22ko Agindua, Pisatze-tresna ez-automatikoetan EEEk egin beharreko kontrol metrologikoa arautzen duena (1995-01-03ko BOE), eta haren hutsen zuzenketa (1995-02-06ko BOE) (Barne zuzenbidean txertatzen ditu 90/384/EEE Zuzentaraua eta 93/68/EEE Zuzentarauaren bidez egindako aldaketak).

– 1999ko apirilaren 27ko Agindua, pisatze-tresna ez-automatikoetan Estatuak egin beharreko kontrol metrologikoa arautzen duena, aldizkako egiaztapenen eta konpondu nahiz aldatu ondorengo egiaztapenen faseei dagokienez (1999-05-08 BOE).

– 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena (2003-12-30eko EHAA).

– 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa.

– 318/1999 Dekretua, abuztuaren 31koa, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua arautzen duena (1999-10-26ko EHAA, 205. zk.).

1.– XEDEA

Ebazpen honen xedea da EAEn erabiltzen diren etiketa metrologikoak egokitzea hizkuntza-arloan indarrean den araudiari.

2.– APLIKAZIO-EREMUA

Honako hauek dira ebazpen honen hartzaileak:

– Egiaztatze Metrologikoa egiteko Baimendutako Erakundeak (EMBE), zehazki, Euskjal Autonomia Erkidegoan dihatdutenak, Estatuaren kontrol metrologikoaren menpe dauden neurketa-tresnen aldizkako egiaztatzeei eta konpondu nahiz aldatu ondorengo egiaztatzeei dagokienez.

– Lurralde-ordezkaritzen zerbitzu tekniko eskudunak.

Honako hau izango da aplikazio-eremua:

– Aldizka egiaztatzea eta konpondu nahiz aldatu ondoren egiaztatzea Estatuaren kontrol metrologikoaren fase horien menpe dauden tresnak.

– Pisatze-tresna ez-automatikoen –zubi-baskula motakoen– gehieneko ahalmena mugatzea.

– Legezko metrologiaren menpe ez dauden tresnak.

3.– ERABILI BEHARREKO ETIKETA-EREDUEN DEFINIZIOA

Aurrekariak

244/2016 Errege Dekretuak II. eranskinean definitzen du nolakoak izan behar duten egiaztatze-etiketen ereduek, bai egiaztatzea gainditzen den kasurako, bai gainditzen ez denerako. Ondoren, definitzen da nolakoak behar duten Euskal Autonomia Erkidegoan erabili beharreko eredu elebidunek.

Halaber, definitzen dira nolakoak izan behar duten pisatze-tresna ez-automatikoen gehieneko ahalmena adierazten duten etiketa elebidunen ereduek, bai eta legezko metrologiarako egokiak ez diren tresnen etiketek ere.

a) ALDIZKAKO EGIAZTAPENEN ETA KONPONDU EDO ALDATU ONDORENGO EGIAZTAPENEN ETIKETAK

3.1.– Egiaztapena gainditzen denerako etiketa. Etiketa zuria.

Hondoa zuria izango du, eta marrak eta karaktereak, berriz, beltzak, betiere II. eranskineko irudiekin bat etorriz.

Kanpoko eragileei –atmosferakoei, urratzaileei nahiz inpaktuei– erresistente dien material batez egina izango da.

Forma errektangeluarrekoa izango da, 60 mm x 70 mm, beste tamaina batzuetarako proportzioak mantendu beharko direlarik, itsasgarri erakoa, eta askatzean autosuntsituko dena.

Tresnak egiaztapena gainditu duenean erabiliko da etiketa hori, eta hurrengo egiaztapena gainditu behar dueneko hilabetea eta urtea zulatuko dira, legeria aplikagarriarekin bat etorriz.

Tresna egiaztatuan, ikusteko moduko lekuan jarriko da; egiaztatzaileak aukeratuko du non.

3.2.– Egiaztapena gainditzen ez denerako etiketa. Etiketa gorria.

Hondoa gorria izango du, eta marrak eta karaktereak, berriz, beltzak, betiere III. eranskineko aurkezpenarekin bat etorriz.

Kanpoko eragileei –atmosferakoei, urratzaileei nahiz inpaktuei– erresistente zaien material batez egina izango da.

Forma errektangeluarrekoa izango da, bere dimentsioak egokiak delako tresnarentzako eta bai ikusi ahal izateko ere, eta itsasgarri erakoa eta askatzean autosuntsituko dena.

Tresnak egiaztapena gainditu ez duenean erabiliko da etiketa hori, harik eta, egin beharreko konponketa edo doitzea egin ondoren, gainditzen duen arte.

Egiaztatzea gainditu ez duen tresnan, ikusteko moduko lekuan jarriko da; egiaztatzaileak aukeratuko du non.

3.3.– Etiketaz hornitzea.

Ebazpen honekin bat etorriz, EMBEk edo administrazio honen eskariz inprimatuko dira etiketa berde eta gorriak, hau da, aldizkako egiaztapenen eta konpondu eta aldatu ondorengo egiaztapenen etiketak.

b) PISATZE-TRESNA EZ-AUTOMATIKOEN GEHIENEKO AHALMENA MUGATZEKO ETIKETA

Hondoa horia izango du, eta marrak eta karaktereak, berriz, beltzak, betiere IV. eranskineko aurkezpenarekin bat etorriz.

Kanpoko eragileei –atmosferakoei, urratzaileei nahiz inpaktuei– erresistente zaien material batez egina izango da.

Forma errektangeluarrekoa izango da (59 mm x 106 mm), itsasgarri erakoa, eta askatzean autosuntsituko da.

Etiketak eskuratzen direnean, ez dute ezer inprimatuta izango. Instrukzio honetako 2. atalean aipatzen diren agenteek inprimatuko dituzte.

Gehieneko ahalmena mugatzeko etiketa itsasgarria tresnan jarriko da, karga-plataformatik eta bisorea irakurtzeko lekutik ikusteko moduko toki batean. Bi baldintzak betetzea posible ez bada, bi etiketa jarriko dira.

c) LEGEZKO METROLOGIARAKO EGOKIAK EZ DIREN TRESNEN ETIKETA

Hondoa laranja izango du, eta marrak eta karaktereak, berriz, beltzak, betiere V. eranskineko aurkezpenarekin bat etorriz.

Kanpoko eragileei –atmosferakoei, urratzaileei nahiz inpaktuei– erresistente zaien material batez egina izango da.

Forma errektangeluarrekoa izango da (40 mm x 70 mm), itsasgarri erakoa, eta askatzean autosuntsituko da.

Titularrak adierazten badu pisatze-tresna ez dela sartzen legezko metrologiaren aplikazio-eremuaren barruan, «tresna hau ez da egokia legezko metrologiarako» dioen etiketa laranja jarri beharko da, horren berri eman beharko zaio dagokion lurralde-ordezkaritzari eta Tresna Identifikatzeko Boletina aurkeztu beharko da, bai eta titularraren deklarazioa ere dagokion datu-basean erregistra dadin.

II. ERANSKINA

EGIAZTAPENA GAINDITZEN DENERAKO ETIKETA

Formatua (60 x 70 mm)

<table>
<tr><td colspan="8">GAILUA /
INSTRUMENTO</td></tr>
<tr><td colspan="2" rowspan="3">Ikuskapen Metrologirako Baimendutako Erakundea /
Organismo Autorizado de Verificación Metrológica

Identifikazio zk /Nº identificación:

Ikuskapen data / Fecha verificación:</td><td colspan="6">Ikuskapenaren emaitza
Resultado de la verificación

ONARTUTA/
CONFORME

Balio Epea / Válido hasta:</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Hila / Mes</td><td>U
E</td><td>O
F</td><td>M
M</td><td>A
A</td><td>M
M</td><td>E
J</td></tr>
<tr><td>U
J</td><td>A
A</td><td>I
S</td><td>U
O</td><td>A
N</td><td>A
D</td></tr>
<tr><td>Urtea
Año</td><td>20
17</td><td>20
18</td><td>20
19</td><td>20
20</td><td>20
21</td><td>20
22</td></tr>
</table>

Dimentsioak eta tipografia

Euskarazko testuak **BELTZEZ** idatziko dira.

III. ERANSKINA

EGIAZTAPENA GAINDITZEN EZ DENERAKO ETIKETA

Formatua (60 mm x 70 mm)



Dimentsioak eta tipografia

Euskazrako testuak **BELTZEZ** idatziko dira.

IV. ERANSKINA

PISATZE-TRESNA EZ-AUTOMATIKOEN GEHIENEKO AHALMENA MUGATZEKOI ETIKETA

Formatua (59 mm x 106 mm)

Kontrol Metrologikoa / Control Metrológico

GEHIENEZKO NEURKETA-EREMUAREN MUGA:
ALCANCE MÁXIMO LIMITADO A
MAX =_____kg

Tokia eta data / Lugar y fecha**:**

OAVM:

Dimentsioak eta tipografia

Euskatazko testuak **BELTZEZ** idatziko dira**.**

V. ERANSKINA

LEGEZKO METROLOGIARAKO EGOKIA EZ DEN TRESNARE ETIKETA

Formatua (40 mm x 70 mm)



Dimentsioak eta tipografia

Euskarazko testuak **BELTZEZ** idatziko dira.